



UHANDRE PALMATUA

Lissotriton helveticus

TAMAINA

9,5 zm baino gutxiago

ITXURA

Uhandre palmatuak gorputz luzatua eta nahiko buru zabala du.

Arra marroia da, eta saihestak beltzez apainduak ditu. Sabela laranja argia du.

Emea arra baino handiagoa da. Marroi argia da, tatxarik kasik gabea, eta sabel laranja-zurpaila du.

ESPEZIE
BABESTUA
HARRAPATZEA
EDO HILTZEA
DEBEKATUA DA

NOLA IDENTIFIKATU?



NOIZ?

> Martxotik urrira

NON?

- > Uretako landarediak dituzten ur eremuetan
- > Oihanetik hurbil
- > Erreka txikietan

AURKEZPENA

BIZI ESPERANTZA

12 urte

ESPEZIEAREN EKOLOGIA

Uretako ornogabeak jaten ditu.

Uhandre palmatua gehienetan uraren hondoan edo landaredian egoten da.

Ugalketa sasoa goiz egiten da. Eme batek 290 arraultza uretako landareetan erruten ditu.

Uhandre palmatuaren bizi-eremua nahiko ttipia da (150 m), eta bere bizi-zikloaren bi faseei lotua: uretako fasea ugalketarako eta lurreko fasea (oihanean) negua iragaiteko.

BEHARRAK, MEHATXUAK ETA ERRONKAK

Uhandre palmatuak kalitate oneko urak hobesten ditu.

Hezeguneen idortzeak, arroilen tapatzeak, hesien kentzeak eta lurrak laborantzarako bilakaratzeak eragin handia du espeziearentzat, joan-etorriak eta negua pasatzeko tokieko sarbideak mugatzen baitituzte. Errepideak habitatak zatitzearen erantzule dira ere bai.

Ugalketa-lekuen arteko lotura bereziki garrantzitsua da populazioen bakartzea saihesteko. Hesiak, larre korridoreak, baita ur eremu berriak izateak ere uhandre palmatuaren hedapen lagundu dezakete.